# BARAKALDO hITZA 2016

## XIII. LITERATUR JARDUNALDIAK

Apirilaren 18tik 30era

### EGiTARAUA

Antolatu: Barakaldo CIUDAD·HIRIA

babestzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

programa_hitza_eusk_2016_final.indd 1 6/4/16 9:19



programa_hitza_eusk_2016_final.indd 2 6/4/16 9:19

Barakaldoko Udalak antolatutako Literatur Jardunaldiak aurrerapauso bat eman du aurten, eta  literaturaz online bertsioan -**Hitza 2.0**16- gozatzeko aukera eskaintzen dizu.

Hainbat QR KODE  banatu ditugu Barakaldoko zenbait puntutan,  eta haietan, idazle klasiko eta garaikideen aurpegiak agertzen dira.

Cervantesen Kixoteren konpainia eskaintzen dizugu haren abenturak bizitzeko, bai eta Bernardo Atxagaren prosa aberats eta bizia dastatzeko aukera edo Rosalia de Castroren poemak errezitatzekoa ere.

Nola?

Deskargatu zure mugikorreko app storetik edozein QR kode irakurgailu. Atzeman QR kodea, eta hortxe izango duzu literatur aukeraketa zabala, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Goza ezazu Barakaldo  **Hitza 2.0**16 nonahi eta noiznahi, eta MURGIL ZAITZEZ LITERATUR MUNDUAN!!!

## Apirilak 18, astelehena

17:00 Retuertoko Kultur Etxea
**Kaligrafia tailerra “La bella escritura: uncial y gótica”**
*(aurretiko izen-ematea)*

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Irudigileen mahai-ingurua “De profesión ilustrador”**
Partaideak: Mónica Tallón, Olatz García, Mentxu Fernández, Elisabeth Pérez eta Oskar Blanco

## Apirilak 19, asteartea

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Irakurketa Klubaren hitzaldi didaktikoa “Ponernos en jaque. Juan Mayorga en Reikiavik”**
Josu Monterorekin (idazle eta literatur kritikoa)

## Apirilak 20, asteazkena

12:00 **Bisitak: Larrazabalgo Eskolak (gidatua).**

18:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Literatur maratoia.**
Irakurtzea bizio bakartia da; baina, ezohiko plazer txikia, elkarrekin partekatzea. Irakurle bati entzun, eta beste batzuei gure irakurketa, gure ahotsa oparitzea. Horretan ordu batzuk ematea da asmoa. Aurrez irakurri dugun, eta hunkitu gaituen eleberri edo poema baten zatia gainerakoei irakurtzea; hori bai, gehienez, bizpahiru minututan, nahi duen orok parte har dezan. Jakina, literaturaz eta gainerakoen ahotsez gozatzea. Aurten Miguel de Cervantes-en urteurrena dela medio, haren obraren zati bat irakurtzea proposatzen diogu nahi duenari, baina ez da zertan izan Kixoteren pasarte bat

## Apirilak 21, osteguna

18:00 Gurutzetako Zentro Zibikoa
**Hitzaldi-solasaldia ¿Sabes por qué lees lo que lees?. Gure literatur ohituren inguruan hausnartuko dugu elkarrekin**
Josune Muñoz (Skolastikako elkartekidea)

19:00 Clara Campoamor Zentro Cibikoa
**Hitzaldia “El Monasterio de Burceña. Un elemento clave de la historia de Barakaldo (S.XV - S.XIX)”**
Aurkezlea: Txeru García Izagirre • Hizlaria: Javier Barrio Marro

## Apirilak 22, ostirala

11:30 Herriko Plaza.
**Barakaldoko XXVI. Liburu Azokaren hasiera**

18:00 h Gurutzetako Zentro Zibikoa
**Bi birra literaturaren alde** *(aurretiko izen-ematea)*
Garagardoa izan da Charles Bukowski, Blasco Ibañez edo J.R.R Tolkien-en eta beste autore askoren liburuetan beste protagonista bat. Hiru liburu; liburu bakoitzeko irakurketa bat, irakurketa bakoitzeko zurrutada bat, zurrutada bakoitzeko garagardo bat. Emailea: La Catedral de la cerveza likore-denda

19:00 Liburutegi Nagusia

**Koldo Lopez idazle barakaldarraren “La Guerra Civil en Barakaldo, 11 meses de resistencia” liburuaren aurkezpena;** gero, bisita gidatua: “Irakatsi gabeko ikasgaia” erakusketa

## Apirilak 23, larunbata (Liburuaren eguna)

16:30 Herriko Plaza

**VII. Literatur Rallya**

Hiriak oinez irakurtzen diren liburuak dira. Oinez ibili eta behatu. Zolak eta zentzumenak. Minutuero aldakorra, baina, aldi berean, iraunkorra. Egunerokotasunaren eta oroimenaren hiria. Gune dinamiko eta lasaia, eguraldi zakar edo atseginarekin. Barakaldo osoa zeharkatu, ibilbide bati jarraiki: lekuak, txokoak, jendea, zuhaitzak, pasatzean bizitzak, eguzkipean distiratzeko edo euripean pizteko modu bat: idatzi, hitz bihurtu: idatzi eta bizi izan, aldi berean

18:00 Gurutzetako Zentro Zibikoa

**Toni La Sal-en txotxongiloak: “Ipuin Lapurra”**

Pinotxo, Otsoa, Txanogorritxo, Hiru Txerrikumeetan argiena, Sorgina, Katu Botaduna eta Lanparako Jeinua zoramenezko txotxongilo-istorio batean nahasten dira ustekabeko amaierarekin.

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa

**Literatura eta ardoa “La Ruta de Don Quijote”.** *(aurretiko izen-ematea)*

Cervantesen obran, ardoari buruzko aipamen ugari egiten dira, gorputza elikatu eta animoa bizkortzeko gai ordezkaezina baitzen edaria Urrezko Mendean. Hiru ardo dastatzeko gonbita luzatzen dizugu On Kixoteren pasarteek lagunduta.

Enologoa: Antonio García Gómez

## Apirilak 25, astelehena

18:00 Burtzeñako Kultur Etxea

**APIKA, familientzako ipuin-kontalaria: “Liburuz Liburu”**

*(aurretiko izen-ematea)*

Txiki iruditu arren, liburuen barruan denetarik aurkitzeko aukera dugu: animalia ugari, basamortuak eta oihanak, eta zeruko izar guztiak. Ondo pasatzeko, liburuak ireki besterik ez da egin behar

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa

**Álvaro Arbina Espainiako eleberri historikoaren best seller egilearekiko topaketa. Gasteiztar hau “La mujer del reloj” eleberriaren idazlea da,** Napoleonen aurkako Independentzia gerlak iraun zuen bost urteetan zehar lekutzen den thriller eta genero poliziakoaren arteko eleberri historikoa

## Apirilak 26, asteartea

11:30 Clara Campoamor Zentro Zibikoa

**Hitzaldia: Jon Arretxe da Touré sagaren egilea. Idazle euskaldunak** Touré detektibe-igarleari buruz hitz egingo digu, San Frantzisko eta Afrikako irudi eta erreportajeekin

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa

**Jose Ramon Arana idazle barakaldarraren “Los amores de Eloisa y Abelardo” liburuaren aurkezpena**

programa_hitza_eusk_2016_final.indd 5 6/4/16 9:19

**Apirilak 27, asteazkena**

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Irakurketa Kluba: Belen Gopegui nobelagile eta gidoilariarekin topaketa**

20:00 h Barakaldo Antzokia
**"Bécquer sinphónico" kontzertua Barakaldoko Udal Musika Bandaren eskutik,** Iñaki Urrutia aktorearekin elkarlanean

**Apirilak 28, osteguna**

18:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Gurasoentzako solasaldi tailerra: Carmen Villanueva-ren "Los Terapicuentos" Dibertsioa eta laguntza ipuin baten bitartez!**
Ludoteka-zerbitzu osagarria (lau urtetik gorakoentzat) *(aurretiko izen-ematea)*

18:00 Zuhatzuko Kultur Etxea
**Literatur txokolatealdia.** *(aurretiko izen-ematea)*
Txokolate-dastaketa, gozo-garratza, literatur kontakizun batzuen irakurketarekin uztartua. Emailea: Juan Ángel Rodrigálvarez (2010eko gozogilerik onena)

**Apirilak 29, ostirala**

19:00 Clara Campoamor Zentro Zibikoa
**Poesia errezitaldia: "En un lugar de Cervantes"**
Poetaliak irakurriko du Blanca Sarasua euskal olerkariaren 'Baciyelmo' poema-bilduma On Kixote obrarekin solasean, mandolinaren soinuak lagunduta

**Apirilak 30, larunbata**

20:00 Barakaldo Antzokia
**Ikusleen kluba**
2013. urtean, Drama Literaturaren Sari Nazionala jaso zuen Juan Mayorga dramagilearen "Reikeavick" obraren emanaldira taldean joatea; eta geroxeago, Daniel Albadalejo eta Cesar Sarachu aktoreekin topaketa *(aurretiko izen-ematea)*

## JARDUERA GEHIAGO

**LIBURU TRUKEA**
**Apirilaren 18tik 30era**
Gustuko al duzu irakurtzea? Ba al duzu irakurritako liburirik? Haiek gordetzeko lekurik gabe gelditu al zara? Orain duzu liburuak trukatzeko aukera, Barakaldoko zentro zibiko eta kultur etxeek gune bat jarri baitute propio liburuak trukatzeko

## JARDUERA DIBERTILITERARIOAK

**Apirilaren 18tik 30era**

Literatur jardunaldiak iraungo duten bitartean, Barakaldoko zentro zibiko eta kultur etxeek hitzekin eta liburuekin jolastea proposatzen dute, horretarako, bost hitz-joko aterako dituzte, guztion artean ebazteko. Parte hartzen dutenen artean, dozenaka liburu zozketatuko dituzte

## QR LITERATURA

**Apirilaren 18tik 30era**

Ia 200 QR kode (Quick Response code) banatu dira gure udalerriko kaleetan zehar. Mugikor edo tabletaren kameraz baliatuz, kode aldera apuntatu eta zuretzat hautatutako dozenaka liburuen pasarteak irakurtzeko aukera izango duzu; beraz, baldin eta atsegin baduzu, dendan erosi eta/edo deskargatu ahal izango duzu

## KONTAKETA LABURREN I. LEHIAKETA

**Apirilaren 4tik 17ra**

Parte hartzaileek kontaketa labur bat idatziko dute (hogei hitz gehienez), “esnatzean” hitza erabiliz. Kontaketak Whatsapp bidez bidaliko dira hurrengo zenbaki honetara: 680 233 703

## ERAKUSKETAK

**Apirilaren 4tik 30era**

Clara Campoamor eta Gurutzetako zentro zibikoak, Gaztebulegoa eta Udal Euskaltegia: Barakaldoko irudigileen **“BARAKALDO IRUDIGILE – BARAKALDO ILUSTRA”** izeneko baterako erakusketa

**Apirilaren 20tik maiatzaren 5era**

Erakusketa Areto Nagusia

**“Irakatsi Gabeko Ikasgaia” Espainiako guda zibila testu liburuetan - 1937-2005 erakusketa**

“Gernikako Bakearen Museoa” Fundazioa eta Gernikako Bonbardaketari buruzko Dokumentazio Zentroa

## HITZTRUKE 2016

**Liburuak trukatzeko XV. Haur jardunaldiak**

Liburuak trukatuko dituzte Barakaldoko 13 ikastetxeetako lehen hezkuntzako 3. mailako 464 eskola-umek, Clara Campoamor Zentro Zibikoan, maiatzaren 10 eta 11n; eta Gurutzetako Zentro Zibikoan, berriz, maiatzaren 17 eta 18an

## HITZBATU 2016

**Barakaldoko eskola-umeek taldeka idatzi eta ilustratutako ipuin-liburuak**

Barakaldoko 13 ikastetxeetako lehen hezkuntzako 4. mailako 555 eskola-umek hartzen dute parte taldeka Hitzbatu edizio honetan. 24 ipuin original idatzi dituzte. Apirilean, paperean argitaratu, eta partaideen, euren irakasleen eta eskola zein udal liburutegien artean banatuko dira

programa_hitza_eusk_2016_final.indd 7 6/4/16 9:19

# BARAKALDOKO **XXVI. LIBURU AZOKA**

## Apirilaren 22tik maiatzaren 1era

**Barakaldoko Herriko Plazan egingo da berriro Liburu Azoka. Standak zabalik egongo dira: Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Primerako abagunea duzu, literatur nobedadeak zuzenean ezagutu, eta klasikoetara hurbiltzeko.**

### • Apirilak 22, ostirala

11:30 Barakaldoko XXVI. Liburu Azokaren hasiera

### • Apirilak 23, larunbata

12:00etatik 14:00etara, Kaligrafia eta serigrafia tailerrak eta “Los viajes del Sr. Tonet” familientzako jokoak

17:00etatik 20:00etara, arratsaldez ere “Los viajes del Sr. Tonet” (Cia. Tombs creatius) familientzako jokoak

### • Apirilak 24, igandea

12:00 Barakaldoko irudigileek zuzeneko ilustrazioa egingo dute. Olatz García, Mónica Tallón, Mentxu Fernandez, Oskar Blanco y Sergio Cardoso

12:30 Mister Silhouette. Paper beltzean zuzenean egiten den erretratua da silueta, kartoi-mehea artaziez moztuz, aurretik marrazkia egin gabe. Giza aurpegia berezko eran erreferentzia edo eredu gisa hartuta

### • Apirilak 29, ostirala

17:00etatik 20:00etara, “Colores Monstruosos” familientzako jokoak (Cia. Tombs creatius)

### • Apirilak 30, larunbata

12:00etatik 20:00etara, Herriko Plaza

“Elur malutak”. Entzun, begiratu, ukitu eta dastatzeko moduko kontakizunak (Mama crea Producciones)







Argibide gehiago, izan-emateak eta gonbidapenak ekitaldietarako Barakaldoko zentro zibiko eta kultur etxeetan eta web orrian

**Burtzeñako Kultur Etxea**
Francisco Tierra, 4 / Tel. 944789496

**Zuhatzuko Kultur Etxea**
Unamuno, 7 / Tel. 944789512

**Erretortuko Kultur Etxea**
Beteluri bidea s/n / Tel. 944789506

**Gurutzetako Zentro Zibikoa**
Balejo, 4 / Tel. 944789485

**Clara Campoamor Zentro Zibikoa**
Gernikako Arbola, 41
Tel. 944789552

**www.barakaldohitza2016.com**

programa_hitza_eusk_2016_final.indd 8 6/4/16 9:19